



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko abenduaren 16a

144. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu Osasun Departamentuaren eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren arteko lankidetzaren sinergiko bat ezar dezan, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen garapenari bultzada nabarmena emateko, azpimarra arrisku psiko-sozialetan jarrita. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Erabakia, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita Plan estrategiko bat abiaraz dezan Nafarroan iktusaren arretari ekiteko, iktus pediatrikoaren kodea barne, eta 2022ko Osasun Planari gehitzea. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kalitatezko arreta soziosanitarioa berma diezaien gaixotasun mental larria duten pertsonen, eta arreta hori ahal dela zerbitzu publikoek eman dezaten. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonen arreta eta zaintza integrala hobetu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin beharreko urratsak egin ditzan Espainiako Gobernuarekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatzeko, AHTa garatzeko lankidetzaren jardute aldera. Navarra Suma talde parlamentarioko José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu du. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (5. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, argindarraren faktura ordaintzeari utz diezaioten Nafarroako udalei egiten zaien intsumisio-proposamenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, unibertsitate-tituluen jaulkipenetik Erregea kentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, azterketa batean kopiatzeko ekintza falta arin zehagarria izateari uzteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, irakasle titularrak errektore izatera aurkeztu ahal izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu Osasun Departamentuaren eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren arteko lankidetzaren sinergiako bat ezar dezan, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen garapenari bultzada nabarmena emateko, azpimarra arrisku psiko-sozialetan jarrita.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2021eko abenduaren 9an onetsitako honako erabaki hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Departamentuaren eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren arteko lankidetzaren sinergiako bat ezar dezan, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen garapenari bultzada nabarmena emateko, azpimarra arrisku psiko-sozialetan jarrita. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Osasun Departamentuaren eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren arteko lankidetzaren sinergiako bat ezar dezan, Lane-

ko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen garapenari bultzada nabarmena emateko, azpimarra arrisku psiko-sozialetan jarrita.

2. Berariazko ebaluazio bat egin dezan Lan Osasunaren III. Planeko (2015-2020) eta Lan Osasuneko Ekintza Planeko (2017-2020) ekintzei dagokienez abiarazitako neurrien inpaktuari buruz, oinarri gisa hartzen ahalko dena ekintzak birdefinitzeko eta, halatan, haien ezarpenaren bitartez lan-istripuen tasaren egungo emaitzak hobetzeko, bai eta lan-osasuneko nahiz lan-arriskuen prebentzioko beste lehentasun batzuek ere onbideratzeko.

Iruñean, 2021eko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita Plan estrategiko bat abiaraz dezan Nafarroan iktusaren arretari ekiteko, iktus pediatrikoaren kodea barne, eta 2022ko Osasun Planari gehitzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2021eko abenduaren 9an onetsitako honako erabaki hau: Osasun Departamentua premiatzen da Plan estrategiko bat abiaraz dezan Nafarroan iktusaren arretari ekiteko, iktus pediatrikoaren kodea barne, eta 2022ko Osasun Planari gehitzeko. Hona testua:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du:

1. Plan estrategiko bat abiaraz dezan Nafarroan iktusaren arretari ekiteko, iktus pediatrikoaren kodea barne, eta 2022ko Osasun Planari gehitzeko

2. Prebentzio etengabeko kanpainak egin dituzan, herritarrei informatze aldera arrisku-faktore nagusiei buruz eta bizimodu osasungarria izatearen garrantziari buruz, herritarrek horren gainean duten ezagutza hobetu bidenabar.

3. Osasun arloko profesionalen prestakuntza hobetu dezan, pertsoneri eta familiei ematen zaien laguntza hobetzeko.

4. Gaixoen elkarteak gogoan izan dituzan, zeresan handia izan behar baitute erabakiak hartzean.

5. Iktusaren gaineko ikerketaren aldeko apustu irmoa egin dezan”.

Iruñean, 2021eko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kalitatezko arreta soziosanitarioa berma diezaien gaixotasun mental larria duten pertsoneri, eta arreta hori ahal dela zerbitzu publikoek eman dezaten.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2021eko abenduaren 9an onetsitako honako erabaki hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da kalitatezko arreta soziosanitarioa berma diezaien gaixotasun mental larria duten pertsoneri, eta arreta hori ahal dela zerbitzu publikoek eman dezaten. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kalitatezko arreta soziosanitarioa berma diezaien gaixotasun mental larria duten pertsoneri, eta arreta hori ahal dela zerbitzu publikoek eman dezaten”.

Iruñean, 2021eko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonen arreta eta zaintza integrala hobetu dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2021eko abenduaren 9an onetsitako honako erabaki hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonen arreta eta zaintza integrala hobetu dezan. Honako du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Besterik gabe bete ditzan Nafarroako gaixo kroniko eta pluripatologikoentzako Arreta Integratuko Estrategiaren baitan alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonen arretarako dokumentuan jasotako prestazio eta konpromiso guztiak.

2. Alboko esklerosi amiotrofikoaren diagnostikoa duten pertsonentzako errehabilitazio integral eta unibertsala berma dezan gehienez ere sei hilabeteko epean, % 100eko finantzaketa publikoarekin, gaixotasunaren prozesu osoan zehar, etxeko nahiz egoitzako errehabilitazio integralaren modalitateak barne.

3. Alboko esklerosi amiotrofikoaren diagnostikoa duten pertsona guztien mendekotasun- eta desgaitasun-mailaren berehalako balorazioa egiten dela berma dezan, eta maila horren berriak penak egin dezan gehienez ere hiru hilabeteko epean.

4. Berma dezan finantzaketa publikoa ematen dela teknika aurreratuko laguntzetarako, aireztapen egokiko sistema alternatiboetarako, garabi, ohe artikulatu, eskaren aurkako koltxoi, komuneko aulki beso-euskarridun eta komunikazio-gailu alternatibo eta handigarrietarako, begi-irakurgailuetarako edo alboko esklerosi amiotrofikoaren diagnostikoa duten pertsonen bizi-kalitatea errazteko bestelako premia batzuetarako, berariazko zirkuitu eta guzti alboko esklerosi amiotrofikoa duen inork ez dezan zailtasunik eduki laguntza horiek eskuratzeko gastuak itzultzeko atzerapekak direla-eta. Neurri hori sei hilabetez bermatu behar da.

5. Diru publikoarekin finantzatu ditzan, sei hilabeteko epean gehienez ere, alboko esklerosi

amiotrofikoaren diagnostikoa duten pertsonentzako etxebizitzak eta ibilgailuak egokitzeko eta aldi baterako etxebizitza eta ibilgailu egokituak eskuratzeko laguntzak.

6. Plazak berma ditzan egoitza-zentroetan pertsona kaltetuak etxean egon ezin direnean, bermatuta langileak alboko esklerosi amiotrofikoaren diagnostikoa duten pertsonak zaintzeko prestakuntza eta eskarmentua dutenak direla.

7. Zaintzaileei babesa eta prestakuntza-neurriak berma diezazkien.

8. Laguntza psikologikoa eta bidelaguntasun emozionala berma diezazkien alboko esklerosi amiotrofikoak jotako pertsonen haien bizitzaren bukaera-partean, bai aldi hori ospitale edo egoitzan pasatzen dutenei bai beren etxetan ematen dutenei, ziurtaturik zainketa aringarriak eta bestelako neurri batzuk, beharrezkoak direnak heriotzara hurreratzeko moduari buruzko erabakia mami tzeko.

9. Aitor dezan Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren diziplinaztun unitateko profesionalak eginiko lana, bai eta ANELA-Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Nafarroako Elkartearena ere, eta Alboko Esklerosi Amiotrofikoa duten gaixoen nahiz haien familien arretan eta zainketan laguntzen duten pertsona guztiena.

10. Koordinazioa bultzatu dezan Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren diziplinaztun unitatearen eta ANELA-Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Nafarroako Elkartearen artean.

11. Tratamendu berriei buruzko ikerketan eta saiakuntza klinikoetan inberti dezan.

12. Doitasunezko medikuntza pertsonalizatuaren programan jaso ditzan neuroendekapenezko gaixotasunak, ahalbidetzearen ahalik denbora laburrenean egitea prozesu diagnostikoa eta taxutzea gaixo bakoitzarentzako tratamendurik aproposenerako plana.

Iruñean, 2021eko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin beharreko urratsak egin ditzan Espainiako Gobernuarekin lankidetzahitzarmen bat sinatzeko, AHTa garatzeko lankidetzan jardute aldera. Navarra Suma talde parlamentarioko José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu du.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

2021eko abenduaren 9an egindako Osoko Bilkuran, Parlamentuak ezetsi egin du honako mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko urratsak egin ditzan Espainiako Gobernuarekin lankidetzahitzarmen bat sinatzeko, AHTa garatzeko lankidetzan jardute aldera. Mozioa Navarra Suma talde parlamentarioko José

Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu zuen, eta 2021eko abenduaren 2ko NPAOn –139. zk.– argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, argindarraren faktura ordaintzeari utz diezaioten Nafarroako udalei egiten zaien intsumisio-proposamenari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak argindarraren faktura ordaintzeari utz diezaioten Nafarroako udalei egiten zaien intsumisio-proposamenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko irailaren 16ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen

Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hau egin du (10-21/PES-00256), Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“Nafarroako udalek intsumisioa aldarrikatzearen eta prezioak jaitsi arte argindarra ez ordaintzearen proposamenarekin bat al zatoz?”

Hona hemen erantzuna:

Segun eta.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 6an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, unibertsitate-tituluen jaulkipenetik Erregea kentzeari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak unibertsitate-tituluen jaulkipenetik Erregea kentzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko irailaren 16ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, unibertsitate-tituluen jaulkipenetik Erregea kentzeari buruz (10-21/PES-00258). Hona Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Unibertsitateen ministroak jendaurrean adierazi du testua aldatu egingen dela, jaulkitako tituluetan Erregearen sinadura mantenduko dela erans-teko.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2021eko urriaren 6an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

Galdera, azterketa batean kopiatzeko ekintza falta arin zehagarria izateari uzteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak azterketa batean kopiatzeko ekintza falta arin zehagarria izateari uzteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko irailaren 16ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, azterketa batean kopiatzea jadanik falta arin zehagarria ez izateari buruz (10-21/PES-00259). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako

eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Gai horri heltzen dion testua Unibertsitateko Bizikidetzari buruzko Lege aurreproiektuan dago.

15. artikuluan. B) Falta astuna da:

“d) Iruzur akademikoa egitea, hau da, irakasgai bat gainditzeko edo ikasketen errendimendua frogatzeko norberak nahiz beste norbaitek egindako azterketa edo lan baten emaitzak nahita faltsutzeko asmoz jardutea.”

Beraz, falta arin zehagarria izateari utzi eta falta astun bilakatzen da.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2021eko urriaren 6an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

Galdera, irakasle titularrak errektore izatera aurkeztu ahal izateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak irakasle titularrak errektore izatera aurkeztu ahal izateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko irailaren 16ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, irakasle titularrak hemendik aurrera errektore izatera aurkeztu ahal izateari buruz (10-21/PES-00260). Hona Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko,

Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Unibertsitate Sistemari buruzko Lege Organikoaren aurreproiektu berrian, errektorea hautatzeko baldintzek ez dute murrizten unibertsitatearen bikaintasuna.

Hautagaiei ikerkuntza eta irakaskuntza alorretako merezimendu zorrotzak eskatzen zaizkie, kudeaketa lanetako esperientziaz gainera. Irakasle titularrak gehituta, demokratizatu egiten da errektorearen hautaketa, eta hori ona da gehien-goarentzat, bereziki emakumeentzat, katedradun hautagarrietatik % 20 besterik ez baitira emakumezkoak.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2021eko urriaren 6an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa